

erantzuguzu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

HBko Mahai Nazionala aurki aterako dute espetxetik?

■ **Uste dut atera** behar-ko dituztela gutxi berru. Baina ez nahi dutelako. Soilik PPren esku egon izan balitz, bertan usteltzen utziko lituzkete. Baina hor beste faktore asko ere sartzen direla iruditzen zait niri. Esaterako, Vera eta Barriornuevo aske uzteak eraginik izan dezake. Gainera, irrati espainolak-eta entzuten

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizenak eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

dituzu, eta jada mahaikideen askatasuna asimilatua dutela dirudi. Hala uste dut nik. Baina askotan usteak ustel suertatzen dira, eta ikusi egin beharko da. Itxaropentsu naiz, baina horiek ez dago jaki-

teri. **Martin Etxeberria** (Ondarroa)

■ **Atera, aterako dituzte.** Kontua da noiz. Dirudenez gutxi berru hirugarren gradua eskainiko diete, baina ez omen dute onartuko. Ez nago ziur, bai-

na oraindik mahaikideen abokatuen errekurtsioa erabakitzeko dagoela uste dut. Eta hor badut esperantzarik. Gizarteak presio pixka bat egiten badu... **Aitziber Alonso** (Orereta)

■ **Laster** aterako dituztela uste dut, horretara behartuta aurkituko dira-eta. **Aitor Arana** (Tolosa)



galdeiozu...

Aingeru Epaltza

NAFARROAKO IKASTOLEN FEDERAZIOKO
LEHENDAKARIA

«Nafarroatik eginen dugu Euskadi» diotenak ez al dira Euskadiren eraikuntzari galga edo freno jartzen ari?

Andoni Oiarbide [Legorreta - Gipuzkoa]



■ **EUSKADIREN ERAIKUNTZAK** 47. egiten du, nonbait hor, nire kezken zerrendan. Nolanahi ere, halako planteamenduak 20 urte berantegi heldu dira -100 ez bada- aberzaletasunak lurraldetasunaz den bezainbatean duen istorio tristea aldarazteko. Korbatuz nahiz fularrez jantzia, gaur egun ere aberzaletasunak tematua dirudi Nafarroa uxatzen. Ikuskizun dago Euskadi 2004an EBko kide izanen den. Horrela izanez gero, Nafarroa gabe egiten du.

Urtarrilaren 10tik aurrera
Luis Aranberri 'Amatiño' KAZETARIA izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 leerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Bai Euskarari eta metroa

Bai Euskarari egunean Metroaren Bolueta geltokian gertatua salatzerantz nator.

Zientoka lagun tren bakoitzean, hasi Eibartik Bilboraino iristen ziren arratsaldean Boluetako geltokira. Bertan zerbitzuen eskasiagatik, edota geltoki buruaren arduragabetasunagatik, gertatu ziren jazo behar ez zirenak. Ni neu izan nintzen horren lekuko. Ondorioz, ezin izan genuen garaiz iritsi San Mamesera eta jaialdira sartu ahal izan. Egia esan, nik laneko txartela konbinatu nuelako pasatzea lortu ahal izan nuen, baina nire koadrilakoak berrogei minutu katigatuta gelditu ziren. Durangon ematen zituzten txartelak ez baitziren Metroarekin konbinatzekoak, jende askoren ezjakintasuna dela medio —eta

horretan Eusko Trenbideak ere izan zuen azalpen falta bat—, Boluetara iritsikeran, jende askoren haserreak, deiadarrak eta beste sortu ziren.

Metroari asko kostatuko zitzaion takillan pare bat lagun jartzea? —inor ez zegoen eta ohitura bako zientoka lagun automatikoetan konpondu ezinda guztiz artega—, beste pare bat jendeari argitasunak emateko eta abar? Milioi batzuen kutxa egingo zuen enpresak, eta, horrez gain, herri zerbitzurako dagoenetik mereziko zukeen ahalegintxo bat. Uste dut azalpen bat zor digula Metroak *Bai Euskarari* jaialdira sartu ezinda gelditu ginenoi. Besterik ez, izan ongi. Urte Berri On. **Jose Luis Lizundia** • BILBO

Irungo Erregeak ez dira magoak

Irunen, erregeei, haur euskaldunek ezin adierazi diete urtean zehar zintzo portatu eta gustuko opariak zein dituzten; Orientetik etorritako errege horiek ez direlako magoak eta gure hizkuntzan hitz eginez gero ulertzen ez dietelako. Ez dadila izan hizkuntza haurren esperantza eta ilusioa mantentzeko oztopo. **Aitor Olaiola** • IRUN (GIPUZKOA)

Txalo zaparrada Euskal Irratiei

Bizi naizen eskualdean entzuteko modurik ez badut ere txalogarria iruditu zait beti Iparraldeko

hiru Euskal Irratiek (Gure Irratia, Irulegiko Irratia eta Xiberoko Boza) elkarlanerako erakutsi duten jarrera. Irakurria dudanez, zenbat saio elkarrekin egiten dituzte bakoitzak egindako lanari etekin hobea ateratzeko. Baina nire txalo zaparrada beste arrazoi bategatik doakie. EGUNKARIAN argitaratu duten iragarki batean erredaktoreburu-koordinatzaile batentzako lanpostu deialdia egin dute. Hara non, irizpide nazionala ondo aplikatuz, Euskal Herrian egiten diren hiru hizkuntzak (euskara, frantsesa eta gaztelera) eskatzen dituzten lanpostua eskuratu ahal izateko.

Duda egiten dut Hegoaldeko inongo komunikabideetan inoiz horrelakorik eskatu ote den. Zorionak, hortaz, hiru Euskal Irratiei jarrera nazional horregatik. **Andres Mujika** • BARAKALDO

• MONTXO •

